Pamiela etxea

kalandraka

amets egiteko liburuak®

# Loreen inbentarioa irudiduna




+6


Testua: Virginie Aladjidi

Irudiak: Emmanuelle Tchoukriel

Itzulpena: Oihan Pla



Saila: Inbentarioak -irudidunak-

Gaiak: zientzia, natura, botanika, loreak, landareak...

IBIC: YBC (Album irudidunak); YNN (Historia naturala [haur/gazte])

Kartoizko azala | 21,5 x 30 cm. | 72 or. | Salneurria: 18,00 €

ISBN: 978-84-9172-438-4

HIZKUNTZA HAUETAN ERE: Gazteleraz | Galegoz | Katalanez | Portugesez

ISBN: 978-84-9172-438-4


**Gida ilustratu atsegin eta zehatza, loreen mundu harrigarrian barneratzeko.**

«Loreen inbentarioa (irudiduna)» izeneko honen orrialdeak kolore-festa bat dira, eta, 62 lore motaren eskutik, mundu guztian zehar eramanen gaitu bidaian: Hego Afrikako eskualdeetatik Indonesiako Sumatra uharteraino, Europako belardietan barrena. Lore basati nahiz landatuak modu originalean sailkatuta daude, kolorearen arabera, errazago aurkitzeko, eta lamina bakoitzean espezie bat edo bi ageri dira, izen arrunta eta zientifikoa adierazita, baita altuera eta loraldia noiz den ere. Horrekin batera, deskribapen labur batean zenbait gai lantzen dira, hala nola jatorria, sendabelar gisa duten erabilera, bitxikeria zenbait eta kontserbazio-egoerari buruzko ohartarazpenak.

Bilduma honetako liburu guztietan bezala, Emmanuelle Tchoukriel-en ilustrazioak zehatzak eta errealistak dira, garai bateko landa-koadernoen gisan. Loreekin batera, xehetasun batzuk handiagotuta erakusten dira; besteak beste, sustraiak, petaloak, haziak eta inguruko beste biztanle batzuk: intsektuak, anfibioak, hegaztiak eta belarjaleak, esaterako.

## Virginie Aladjidi

Hainbat urtez gazteentzako aldizkarietan eta argitaletxeetan aritu da. Gaur egun, liburu eta testu bildumak sortzen ditu, Caroline Pellissier lankide duela.
http://virginiealadjidi.blogspot.com

## Emmanuelle Tchoukriel

Arte Aplikatuen ikasketak egin zituen eta ikusizko komunikazioaren arloan osatu zuen bere formakuntza, Parisko Estienne Eskolan sartu eta irudigintza mediko eta zientifikoan espezializatu baino lehen.
http://tchouk-tchouk.blogspot.com

Bilduma bereko beste izenburu batzuk:




18,00 €

ISBN: 978-84-9172-332-5




18,00 €

ISBN: 978-84-9172-396-7




18,00 €

ISBN: 978-84-9172-220-5




18,00 €

ISBN: 978-84-9172-132-1




18,00 €

ISBN: 978-84-9172-039-3




18,00 €

ISBN: 978-84-9172-173-4




18,00 €

ISBN: 978-84-9172-100-0

Pamiela etxea

kalandraka

amets egiteko liburuak®

# Loreen inbentarioa irudiduna



Zimitz gorria

Sanjose-lore goiztiarra

*Primula vulgaris*

Familia: PRIMULAZEOAK

Gehieneko altuera: 15 cm
Loraldia: otsailetik maiatzera/ *bizikorra*

Sanjose-lore goiztiarrak zurtoin motz eta iletsua du. Landare honen lore txikiek bost petalo zapal dituzte, zeinak zenbaitetan elkarri gainjartzen baitzaizkio. Hosto zimur iletsuak ditu, errosetan, zurtoinaren oinaldean. Haren izenak, latinez, «lehena» esan nahi du; izan ere, udaberrian agertzen diren lehen loreetako bat da. Larre hezeak maite ditu, eta haren loreak eta hostoak entsaladan jan daitezke. Sustraiak, berriz, anisaren usaina dauka, eta fitoterapian erabiltzen da (sendabelarren bidezko medikuntza), baita loreak eta hosto berriak ere.
Primulazeoen familian 400 bat espezie daude.

– 1. irudi-orria –

Sanjose-lore usainduna

*Primula veris*

Familia: PRIMULAZEOAK

Gehieneko altuera: 30 cm
Loraldia: apiriletik ekainera / *bizikorra*

Landare hau sanjose-lore goiztiarraren hurbileko senidea da.
Udaberri-lorea ere esaten zaio. Haren loreek usain leun fina dute, eta unbela erako infloreszentziatan taldekatzen dira, sorta batean baleude bezala. Korolak lore-hodi bat eta bost petalo ditu, horia da, eta sepalo soldatuz osaturiko kalizak babesten du. Hostoak obalatuak eta luzangak dira, eta erroseta bat eratzen dute. Hostoak nahiz loreak jangarriak dira, eta sustraiak anis-usaina du. Fitoterapian erabiltzen da, bereziki eztularen eta bronkitisaren kontra, eta infusioan ere hartzen da, lasaigarri gisa eta insomnioa tratatzeko.

– 2. irudi-orria –



1. irud.

2. irud.

Gentziana horia
edo errosta horia

*Gentiana lutea*

Familia: GENTZIANAZEOAK

Gehieneko altuera: 140 cm
Loraldia: ekainetik abuztura / *bizikorra*

Harrigarria! Gentziana horia hamar urterik behin baizik ez da loratzen. Substantzia mingotsak ditu, denbora horretan guztian animalien erasoetatik babesteko. Loreak infloreszentziatan agertzen dira zurtoinaren goiko erdian, hostoen galtzarbeetan, eta bosna petalo hori dituzte, oinaldean elkarri lotuak. Errizoma zortzi zentimetroko diametrora irits daiteke, eta hartatik metro bateraino sustrai luzeak ateratzen dira.
Errizomarekin, gentziana-likore mingotsa ekoizten da. Fitoterapian gehien erabiltzen diren landareetako bat da, propietate sendagarriak baititu.

– 3. irudi-orria –

Urrebotoia

*Ranunculus acris*

Familia: ERRANUNKULAZEOAK

Gehieneko altuera: 30 cm
Loraldia: maiatzetik irailera / *bizikorra*

Urrebotoiak bost petalo hori dauzka, urre-kolore distiratsukoak, eta estu bilduta egoten dira halako kopa bat eratuz. Hainbat estamine ditu, horiak haiek ere, eta hosto finak, oso zatituak. Urrebotoia toxikoa da gordinik janez gero; abereak ez dira bazkatu behar lore hau ugari hazten den larreetan. Ebaki eta idortzen jarri ohi da bazkatzat erabiltzeko, ondutakoan ez baita toxikoa. Urrebotoiak orban gorriak edo babak sortzen ahal dizkio gizakiari azalean, baina jangarria da idortu ondoan edo sukaldean egin ondoan. Urrebotoi bat kokots azpian jartzen baduzu, azala horituko zaizu. Alemanez *Butterblume* esaten zaio; hots, «gurinezko lorea».

– 4. irudi-orria –



1. irud.

2. irud.

Txikori belarra

*Taraxacum officinale*

Familia: ASTERAZEOAK

Gehieneko altuera: 40 cm
Loraldia: apiriletik uztailera / *bizikorra*

Txikori belarrak hainbat lore liguladun ditu (mihi-formakoak), txiki-txikiak, kapitulu hori urrekaratan bilduak. Lore bakoitzak fruitu bat ematen du (akenioa). Fruituek luma-itxurako gandor bana dute, eta askatu egiten dira (2. irud.). Zurtoinak, hautsiz gero, latex moduko bat isurtzen du. Hostoak gordinik jateak eragin diuretikoa du; hau da, pixa eginarazten du. Horregatik, frantsesez *pissenlit* esaten zaio, «pixa ohean», alegia.

– 5. irudi-orria –

Ekilorearen akenioa

2. irud.

1. irud.

Ekilorea

*Helianthus annuus*

Familia: ASTERAZEOAK

Gehieneko altuera: 100 cm
Loraldia: uztaila / *urtekoa*

Ekilorea landare handia da, jatorriz Hego Amerikakoa, eta bertako indigenek jada hazten zuten duela 5.000 urte. Espainiarrek Europan sarrarazi zuten XVI. mendean. Zurtoin zuzen tentea dauka, eta kapitulu erako infloreszentziak 10-30 zentimetroko diametroa izaten du. Hartan bi motatako loreak izaten dira: kanpoaldekoak liguladunak dira, horiak, eta erleak erakartzea beste helbururik ez dute, antzuak baitira; erdigunean, berriz, mila edo bi mila lore izaten dira, tutu-formakoak, bi kiribil osatzen. Ekilore-soro batean, lore guztiak alde berera begira egon ohi dira, eguzkiari jarraikiz. Landare honek sustrai sakonak ditu, eta horri esker udako lehorteei aurre egin diezaieke. Hostoek punta zorrotza dute, eta latz samarrak dira, iletxo tenteak baitituzte.
1960tik, asko landatzen da, ekilore-hazietatik olioa erauzteko.

Txoka arruntak ekilorearen fruituak (akenioak) jaten ditu

– 6. irudi-orria –